

OLABERRIA / Haurrek ipuin kontaketa eta erakusketa batekin gozatzeko aukera izango dute

Gaur, urriaren 24a, Liburutegien Eguna dela eta aurten, Udaleko Kultura sailak Liburu Astea antolatu du eta Olaberriko haurrek ipuin kontaketa eta erakusketa batekin gozatzeko aukera izango dute ostiralera arte.

Bihar, astelehena, erakusketaren aurkezpen bezala ipuin kontaketa bat izango da arratsaldeko 5:30etan udal liburutegian.

Bestalde, Babel: Munduko ipuinak, munduko kulturak izeneko erakusketa ikusteko aukera izango da lukoteka Kometan. Honek bost panel osatzen dute eta bakoitzean herrialde ezberdinetako ipuin bat agertzen da.

Ateak irekita egongo dira 17etatik 19etara eta hurbiltzen diren umeek bi txoko izango dituzte erakusketan parte hartzeko. Izan ere, hiru eta bost urte bitarteko haurrentzako marrazketa txokoa egokituko da eta sei eta hamaika urte bitartekoentzako irakurketa txokoa ere.